



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

Martxoaren 26an izango da Bertso Eguna Izpuran

Sarrerak eskuragai daude www.bertsosarrerak.eus atarian. Egun eta toki berean izango da **Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Batzar Nagusia**, goizean.

Ohi baino beranduago bada ere, 2022k ere izango du Bertso Egunik. Izpurak (Baxenabarre) hartuko du aurtengoa martxoaren 26an. 17:00etatik aurrera izango da herriko Faustin Bentaberri Gelan, eta, Aimar Karrikak gidatuta, Nerea Ibarzabal, Oihana Iguaran, Sustrai Colina eta Unai Agirre ariko dira bertsoan. Gainera, Bertso Egunekoa emanaldi berezia izanik, eskualdeko beste zenbait sortzailek ere hartuko dute parte.

Sarrerak honezkero eskuragai daude www.bertsosarrerak.eus atarian: 9 eurokoa da sarrera, eta 12 eurokoa Bertsozale Elkarteko bazkide ez direnentzat. Gazteek 6 euroan lortu ahal izango dute.

Bertso Eguneko saiora sartzeko ezinbestekoa izango da EBko COVID ziurtagiria aurkeztea, Frantziar Estatuko araudiak hala aginduta. Eguna hurbildu ahala indarrean dauden neurrien jarraipena egitea aholkatzen dugu, ezustekorik gerta ez dadin.

Iaz bi Bertso Egun gauzatu ziren plaza biziberritzeko apustuaren baitan, bata Iruñean eta Getarian bestea; helburu bera izango du aurtengoak ere.

Goizean Batzar Nagusia

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak hitzordua baliatu eta urteroko Ohiko

Batzar Nagusia deitu du egun eta toki berean. 11:00etatik 13:00etara izango da Izpurako Faustin Bentaberri Gelan bertan. 2021eko memoria eta balantzea azaldu eta 2022ko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztuko ditugu, segidan haien onarpena gauzatzeko. Amaitutakoan, mokadua eskainiko zaie agertutako bazkideei, 13:00etatik 14:00etara.

Batzar Nagusirako izena eman behar da www.bertsozale.eus atarian argitaratutako izen-emate orria beteta. Martxoaren 18ko 12:00ak arte eman daiteke izena, eta mokadua egiten geratzekoa zaren adierazi beharko da bertan.



Iruñean egin genuen iaz Bertso Eguneako bat. //XDZ



**MAIALEN
LUJANBIO ZUGASTI**
Tolosa, 2022-01-22

Doinua: Ikusten duzu goizean

Nahiz legedi ugaria
nahiz nekea nabaria
ez da eten bertso haria
hona euskararen
hona herriaren
urtearen ataria
abiatu da abia
bi mila ta hogeita bia
ia ikusten den argia.

Mantso, baina badator plaza

694 saio egin dira 2021ean, aurreko urtean baino ia 200 emanaldi gehiago. Bertso saio motari dagokionez, jaialdiak nabarmentzen dira batez ere, eta horrek bertsolarien parte-hartzean ere eragin du.

Pandemia hasi zenetik hurbiletik jarraitu ditugu bertso plazaren gorabeherak, antzemandako joerek eman beharreko hurrengo pausoak erakutsiko dizkigutelakoan. Behin 2022 hasita, aurreko urte osoari erreparatu diogu.

Urtarrietik abendura bitarteko plazaren bilakaerak izan du gorabeherarik 2021ean, gora egiteko joera handiagoa izan badu ere. Uztaiera bitarte saio kopurua handitzen joan zen, eta hurrengo hiru hilabete gorabeheratsuren ondotik, urriari berriro hasi zen igotzen bertso saio kopurua.

Pandemia lehertu zen urtean baino ia 200 saio gehiago egin dira, 694; aldiz, pandemia aurretik egiten ziren 1.000 inguruko saio kopurutik urrun dago oraindik. Mantso, baina badator plaza.

Jaialdi gehiago antolatu dira

Mahai bueltan egiten diren lagunarteko saioak edota kalean bertsolariak zalearekin erraz nahasten diren plaza libreak ez dira errekuiperatu 2021ean; aitzitik, jaialdiak nabarmen igo dira pandemia aurreko urteetako bilakaerarekin alderatuz gero.

2020an sumatutako joerarekin bat egiten du, honenbestez, 2021ekoak: osasun neurriengatik antolatzeko zailagoak diren lagunarteko saioak eta plaza libreak ordezkatu dituela jaialdiak, alegia.


Halaber, aipatzekoa da bat-bateko emanaldi bereziek izan duten bilakaera. Bertsolaritza beste kultur adierazpide batzuekin uztartzen da saio mota hauetan edota gai jakin baten inguruan ardatzen dira. Lehendik goranzko bidea hartua zuen fenomenoaren bat-bateko bereziena, baina are nabarmenagoa izan da joera hori 2021ean. Bereziki, generoari eta feminismoari lotutako ekitaldiak nabarmendu dira; ezagunena eta gehien egin dena, *Ez da kasualitatea*.

Bertsolarien parte-hartzeari dagokionez

Saio gutxiago egin direnez, bertsolariek parte-hartze gutxiago izan dituztela pentsatzekoa da; ez da, ordea, bete-betean hala izan.

Lagunarteko eta libreko saioen aldean jaialdi gehiago egin dira, eta azken hauetan bertsolari gehiago aritzen dira kantuan: lagunarteko eta librekoetan bi bertsolari aritu ohi dira, eta 4-6 jaialdietan. Horrek saioen galeraren ondoriozko bertsolarien parte-hartzearen txikitzea orekatu du nolabait. Era berean, gizonetako gehiago kantatu ohi duten saio mota gutxiago antolatu dira, eta parekidetasun ikuspegia nabarmenagoa den saio mota gehiago; jaialdi eta bat-bateko bereziak, kasu. 2019an, emakumeen parte-hartzea %36koa zen, eta 2021ekoan, aldiz, %48ra igo da proportzio hori.

Ea zer dakarren 2022ak.



Azken hiru urteotako bertso saio kopuruak. //XDZ

4-6 bertsolari izaten dituzte jaialdiak, eta horrek bertsolarien parte-hartzeari eutsi dio saioen galeraren aurrean. //XDZ

Martxoaren 7an hasiko da Bertso Udalekuetako izen-ematea

Bertso-eskolako kideek edota gurasoetako bat Bertsozale Elkarteko bazkide dutenek eman ahalko dute izena egun horretatik aurrera. Martxoaren 24an hasiko da gainerako lagunentzako izen-ematea.

Amaiurren, Irañetan, Zuhatzan eta Larraulen izango dira 2022ko Bertso Udalekuetako txandak, guztiak uztailean. Hezitzaileen izen-ematea amaituta, udalekuetan parte hartu nahi duten gaztetxoek txanda izango da laster: martxoaren 7an irekiko da izena emateko aukera.

Egun horretako 10:00etatik martxoaren 21eko 12:00etara, bertso-eskolako gazteek edota gurasoetako bat Bertsozale Elkarteko bazkide dutenek eman ahal izango dute izena. Behin epe hori pasata, lehentasuna galdu eta martxoaren 24tik apirilaren 7ra arte, ordutegi berean, izena emateko txanda gainerako lagunei ere zabalduko zaie. Izena emateko www.bertsozale.eus atarian argitaratuko den izen-emate orria bete beharko da.

Maiatzaren hasieran esango zaie izena eman dutenei txandarik egokitu ote zaien, eta orduan emango da taldeen osaketaren berri.

Txanden xehetasunak

16 eta 18 urte bitarteko gazteen egonaldia izango da lehena; Amaiurren egingo da uztailearen 6tik 15era. Hura amaitu eta hurrengo egunean ekingo zaio Irañetako udalekuari, eta han izango dira 12 eta 13 urteko gazteak 10 egunez. Uztailearen 25etik 31era bitartean, Larraulen elkartuko dira 14 eta 15 urte bitartekoak. Egun beretsuetan Zuhatzan izango dira bi txanda ere: bi taldetan banatuko dira 9 eta 11 urte bitartekoak, eta uztailearen 23tik 27ra izango da lehen taldea eta 27tik 31ra bigarrena. Prezioei dagokionez, Amaiurreko egonaldiak 360 euro balio du, Irañetakoak eta Larraulgoak 280 euro eta 245 euro Zuhatzakoak.

Informazioa jasotzen duen eskuorria www.bertsozale.eus atarian dago eskuragai. Galderak izanez gero, deitu +34 943 694129 telefono zenbakira edota idatzi aisialdia@bertsozale.eus helbidera.



Amaiurren, Irañetan, Zuhatzan eta Larraulen izango dira txandak. //XDZ

Martxan da 2022ko Bizkaiko Taldekakoa

23 taldek eman dute izena, eta ia 200 lagunek hartuko dute parte aurtengo edizioan; finala maiatzaren 28an izango da, Bizkaiko Eskolartekoaren finalarekin batera.

Udazkenean Bizkaiko Bertsolari Txapelketa jokatu ostean, Taldekakoa jokatuko dugu Bizkaian maiatza bitartean. Ekimen honen bidez, oinarrian eragin nahi da, bertso-eskolak eta eskualdeak batzeko eta indartzeko asmoz.

Izen-ematea itxita dago, eta 23 talde ditugu prest. Parte hartzaileen profila anitza da: oso gazteak, beteranoak, hasiberriak, Bizkaiko txapeldunak, txapelketan parte hartu dutenak, ez dutenak... guztira, ia 200 parte-hartzaile izango ditugu.

Taldeak, gutxienez, sei lagunekoak izango dira, eta saio bakoitzean hiru bertsolarik, gai-jartzaile batek, epaile batek eta antolatzaile batek parte hartuko du.

Kanporaketak eta finala

Fase bi izango ditu Bizkaiko Taldekakoa: kanporaketen fasea eta finala. Maiatzaren 15era bitarte jokatuko dira kanporaketak, eta finalaren egunerako sailkatuko dira 8 talde. Finala maiatzaren 28an izango da, Bizkaiko Eskolartekoaren finalarekin batera.



Puntu jarrita

AINHOA URIEN TELLETXE

Berriaren nahia ez ezik, nago, berritasuna ere ugari ekarri duzuela, Maddi. Nahia bera egikaritzen ari zarete hogeitaz urteren bueltan zaudetenok. Guk baino bospasei urte gutxiago izanagatik, esango nuke, bestelako indar batekin hartu duzuela bertsolaritzaren olatua. Eta bertsolaritza bera beste modu batzuetan egiteaz gain, zeuk esan bezala zaretenetik kantatzeaz gain, bertsotik sortzeko beste era batzuk egiten ari zarete. Egiten ari gara. Ez bainuke nahi belaunaldiarteko arrakalak sakonago bilakatzerik konparaketa hutsalekin.

Bertsolaritzaren mikromunduan egoteko modu berriak sortu dira, eta hor daude helduaroan bertsozaletu direnak, horiek igarri baitiote bertsolaritzaren eremu batzuetan feminismoak presentzia polita irabazi duela. Iruditzen zait bertsolaritzaren espazio batzuetan ikuspegi feminista bermatuta egoteak hainbat bertsozale berri eragin dituela.

Horregatik kostatzen zait belaunaldien arteko bereizketa orokortuak egitea. Gaiak planteatzerako orduan ere antzeko: baliteke kasu batean belaunaldi ezberdineko kide biri gai bera planteatzeko moduan egotea, jakitun izatekotan marko teoriko antzekoa izango dutela edota kontzeptu eta jite ideologiko batzuk konpartituko dituztela. Izan ere, belaunaldiak baino espazio bitalak eraten du gugan konexio sendoagoa: belaunaldia ahaztu gabe, lurraldea, generoa, ideologia, bizitzeko manierak, ohiturak, egiteko moduak, desirak, planak...

Belaunaldiaren nozioa bera transzenditzen duten beste hainbat konfigurazioak sortzen dituzte gure arteko sinergiak. Egia da gaia bera ez dela berdin pentsatzen aurrean 70eko kide bat edo 2000ko bat baldin badaukazu. Hortaz, bai, gaiak pentsatzeko eta jartzeko modua aldatu egiten da parean duzun bertsolariaren belaunaldiaren arabera. Baina noski, ez horren arabera bakarrik, eta kasuan kasu pisu handiagoa izan lezake aipatutako bestelako konfigurazioek.

Besteak beste, bertsolariarengan pentsatzen dugu guk gaiak jartzekoan. Ez harengan bakarrik, ordea: publiko potentzialarengan, testuinguruan, saioaren formatuan...

Pentsatzen al dute publikoak, antolatzaileek eta, batez ere, bertsolariek gai-jartzailearengan? Aldamenetik erreparatzen dugunon posizioa aldamenekoegia ote da? Zein da gure rola, gure garrantzia, eta nola jasotzen da hori oholtzan eta oholtzatik kanpo? Idoia, gai-jartzaileok egiten al diegu aitortzarik geure buruei; eta zenbateraino aitortzen da gure lana kanpotik?

Koplak

Bertsozale Elkarteko batzarrak

Otsailaren 26an izango da lehen batzarra: Bertsularien Lagunak Elkarteara Senpereko Larraldean egingo dugu, 10:30etik aurrera. Ondoren etorriko dira gainerakoak: martxoaren 12an egingo dugu Nafarroako Bertsozale Elkartekoa Lesakan, 11:00etan; martxoaren 17an egingo ditugu Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa, Durangon eta Orion 18:30ean; eta martxoaren 19an Laudion izango da Arabakoa, 12:00tan. Azkenik, eta berripaper honetan aurreratu bezala, martxoaren 26an Batzar Nagusia izango da Izpuran.

Poto-Finixa



Bertsolarien eta Gai-jartzaileen Mintegia, martxoaren 3an

Lanku Kultur Zerbitzuen ibilbidean pisu handia izan du bertsolari eta gai-jartzaileen iritziak. Horregatik, egindakoaren kontakizuna egin eta aurrera begirako erabakiak elkarrekin partekatu nahi dira. Bertsolarien eta Gai-jartzaileen VI. Mintegia martxoaren 3an gauzatuko da Amasa-Villabonako Subijana etxean, 18:00etatik aurrera; online jarraitzeko aukera ere izango da. Aurrez izena emateko gonbidapena bidali zaie bertsolariei eta gai-jartzaileei.

